

KIROL-INSTALAZIOEN ERANSKINAK ERABILTZEKO ARAUAK

95. artikulua.—Erantsitako instalazioak erabiltzeko aukera

Udal kirol-instalazioek armairuak, dutxak eta komunak erabiltzeko aukera eskaintzen diote edozein erabiltzailereri.

96. artikulua.—Erantsitako instalazioak erabiltzeko arauak

Kirol-instalazioetako edozein erabiltzailek sexu bakoitzerako jarritako aldagelak erabili ahal izango ditu, egin nahi den kirola egiteko beharrezkoa den arropa janzteko.

Horretaz gain, instalazioen erabiltzaileen arropa eta gainerako gauza pertsonalak jasotzeko armairuetarako toki bat egongo da; erabiltzaileek giltza zaindu beharko dute harik eta armairuan utzitakoa berriz ere hartu arte.

Orozkoko Udalak ez du bere gain hartzen kirol-instalazioetan gertatzen diren lapurreten ardura.

Armairuen erabiltzaileek armairuaren giltza zaintzearen ardura izango dute, eta Orozkoko Udalari 6 euro ordaindu beharko dizkiote giltza itzultzen ez badute.

Giltza horiek ezin izango dira kirol-instalazioetatik atera, non eta ez duen atezaindegian dagoen arduradunak horretarako baimena ematen.

97. artikulua.—Aldagelen eta dutxen erabilera

Aldagelak eta dutxak dagozkien erabileretarako erabiliko dituzte nahi duten erabiltzaileek, ahalik eta arretarik handienaz horiek ondo zaintzeko.

98. artikulua.—Kontsumizioak saltzeko makinak

Kirol-instalazioetan kontsumizioak saltzeko makinak daude erabiltzaileen eta bisitarien esku.

Makinetan erositakoak ezingo dira kirola egiteko jokalekuetan kontsumitu, ez igerilekuetako zuloen inguruan eta hondartza-guneetan, ezta hori berariaz adierazita dagoen tokietan ere.

Eusko Jaurlaritzaren Drogamenpekotasunaren Legean ezarritakoaren arabera, debekatuta dago edari alkoholduak eta tabakoa saldu eta kontsumitzea, berariaz horretarako jarri diren tokietan izan ezik.

99. artikulua.—Galdutako objektuak

Erabiltzaileek galdu eta pertsonaren batek aurkitzen dituen gauzak instalazioetako arduradunari eman beharko zaizkio; arduradunak erabiltzaileei jakinaraziko die.

Urtebeteko epea igaro ondoren oraindik ez inork ez badu galdutako objektua erreklamatu, Udalak edo instalazioaren arduradunak objektu horiek saldu edo apurtu egingo ditu, eta salmentatik eskuratutako diru hori udalerrian diharduen ongintza-erakunde bati emango dio.